

HIZTEGI BATUAREN DATU-BASE LEXIKOGRAFIKOA

Leioa, 1994.10.05

Jose A. Aduriz,

Miriam Urkia

Askotan sumatu izan dugu “eginak (berr)egiten” ari garela errezeloa, eta, okerrago dena, etengabe “eginak desegin eta berregin” ari garela. Giza eta gizarte-zientzien inguruan mugitzen garenok —“letretako” gajo-gizarajook— sumatzen dugun errezelor hori, errukizko irribarrez goxaturiko salaketa bilakatzen da maiz “zientzietako” jende prestuaren ahotan.

Erremedioak jartzen hasi orduko, berriz, kontuak bere onetik atera eta sekulako konplikaziotan barrena abiatzen ote garen iruditzen zaigu: etekin urriko nahasmendutan galtzen garela, aztergaiak argitu orde, itxuratxarki korapilatzen ditugula. Urrutirago joan gabe, ez da gisa honetako salaketarik falta izan Hiztegi Batuko batzordeak iritzi-emaielen artean banatu duen dokumentazioaren inguruan.

Egoki iritzi diogu, horregatik, zor diren azalpenak eskaintzen saiatzeari, bestetan eskaintakoen osagarri. Ez, noski, inori dagozkion esparru teknikoetan murgilduz, ez baikenituzke lardaskatu baino egingo. Aski mundu badugu “letren mundua”, Hiztegi Batua lantzean esku artean izan den informazioa bildu eta gordetzeko ahaleginaren berri emateko.

Euskara Batuaren 25 urteko historiarekin paralelo, mende-laurdena pasatxoia omen da ordenadorea erabiltzen dela hiztegi gintzaren lagungarri, guregana heltzeko denbora gehixeago behar izan badu ere. Bide aski luzea eginga du, beraz, eta ez atzera-aurrerarik gabea, informatikariek beren buruei ezarritako erronka eta helburuen eraginez, eta baita informatikarien eta hizkuntzalarien arteko elkar-lanaren eraginez ere.

Informatikarien desafioak argitzeko lana informatikariei utziz, bi xede edo amets nagusiren inguruan bil ditzakegu, labor-zurrean, horien ahalegin-saioak: a) egituratu egin nahi dute hiztegi gileak darabilen informazioa, baina b) egitura arin, ireki, malguan egituratu nahi dute.

Arrotzik arrotzenak ere susma dezake bi printzipio horiek ez dutela oso batera errazak izan behar. Batetik, *erredundantziari ihes egin* nahi zaio, hots: informazio bera behin eta berriro errepikatzen jardun orde, aldiari aldiari behar dena, eta hori bakarrik, eskuratu eta jaso nahi da (egitura arin-irekiko baliabideak erabiliz). Bestetik, ordea, *sistematikoa* izan nahi du bilketak: aztergai bakoitzaren inguruko berriak noiznahi berreskuratzeke aukera eskaini behar du, eginkizun des-

berdinetarako eta modu neutralean eskaini ere (eta horrek egitura zurrunkomplekuko baliabidea luke aproposena).

Aski kontrajarriak iruditzen zaizkigun helburu biok etengabeko erronka dira informatikarientzat, hainbat saio egitera behartuz. Ez da hau saio horien berri emateko paradarik egokiena, are gutxiago horietako bakoitzaren argi-ilunak edo alde on eta ez hain onak neurtzeko; besteak beste, azalpen guretzat teknikoegiak eskatuko lituzkeelako.

Bestetako saio handiak utzi eta Hiztegi Batuko datu-basera hurbiltzearekin batera ohararazi beharrean gara, gurea ez dela eredu teoriko-ideal horien lerroan kokatzekoa, ez behintzat horien maila berean; askoz apalagoa da, edo, zehazkiago mintzatuz, erdibideko baliabide hibridoa dela esango genuke: arlo gutxiko fitxategia da, eta, azpiarloak ugaritu ordez, zenbaki-kodez bereizten ditu arlo bereko jakingaiak. Implementazio-lana zailagotzen duela aitortuz, ereduaren eskakizun nagusienak kontuan dituela uste dugu. Alegia, *datu-basea* da, eta, horregatik, informazioa egituratzera behartzen du, egitura ireki samarrean bada ere. Egituraztearen onurak goratzen eta aldarrikatzen hasi gabe, berehalako batzuk aipa genitzake, erakusgarri gisa: a) behin jaso den informazioa sistematikoki kontsultatzeko bidea eskaintzen du, abiapuntu gerta dadin ondoko saioetan; b) jasotako informazioaz gain, gerora egin daitezkeen zuzenketa, fintze eta formalizazio berriak biltzeko irekia dago; c) egitura egokiagoren batera moldatu beharra gertatuz gero, lan osoa berregin gabe leku-aldatzeko modua izango da.

Egiturak egitura eta eginkizunak eginkizun, bada hurbilagoa egiten zaigun konturik: zer jasotzen da datu-base horretan, eta, batez ere, zertarako da baliagarri? Adibide baten argitan saia gaitzke erantzuten, *erretore* formaren fitxari begira.

Forma	Kodea	Erabakia	Data
erretore	Z1: BatHizt	B	94.05.26

Erabilera

201:

2021: 'apaiza' adierakoa bakarrik agertu da: erretor da forma nagusia 408 agerraldirekin (IE: 399; B-G: 8; EB: 1); erretore 141 aldiz azaldu da (B: 5; G: 106; IE: 24; EB: 6); erretor (IE: 35) bakarrik.

2022: 'eliza bateko buru den apaiza' adieran erretor 78 aldiz jaso da (B: 1; G: 5; IE: 66; EB: 6), erretore 71 aldiz (B: 2; G: 21; IE: 19, hiru testutan; EB: 20; EgAs: 9) eta erretor 3 aldiz (IE). 'Unibertsitateko burua' adierarekin erretore eta erretorriak (erretoregai, erretoretza) dira nagusi, 13 ager.ekin; eta ager. banarekin: erretore, erretore-orde, erretoreordetza, erretoretza.

Azalpena

3121:	erretore da hobestekoa (hots: ‘parrokiako arduradun nagusia’ adieran), B eta G batetik eta IE bestetik baitabilza; hori da, gainera, erabilera zainduetan hedatuena (ik. 3133 irizpidea ere).
454:	-or/-ore.
5332:	parrokiako arduradun nagusia; cf. erretore ‘Unibertsitateko kargudun nagusia’.

Iritzi-emaileak

--

Oharra

jatorrizkoan: erretor(e).

Xehetasunak alde batera utzirik, lau sail handitara ekar ditzakegu fitxa horretako arloak:

1. **Forma / Kodea / Erabakia / Data** arloak biltzen ditu lehenak: aztergai izan diren formen abiapuntu edo jatorriaren berri daukagu hor (bestek azaldu du jatorrizko aztergaien nondik-norakoa, jadanik landurikoena nahiz lantzekoena), batzordearen erabakia laburbiltzen duen kodea (A, B, B1, etc.), eta aztertu nahiz berraztertu den egunaren data.

2. **Erabilerak** izeneko arloak batzordearen lanaren oinarrietako bat jasotzen du: delako forma nork-noiz-nola erabili duen adierazten duten txosten-laburpenak jasotzen dira hor, OEH eta EEBS korpus bietako datuak, alegia. Beste oinarri edo informaziorik ere izan ohi du batzordeak kontuan, baina korpus horietakoa du funtsezkoena eta, hori ezagutu nahiz ezagutarazi beharra ikustean, UZEIko prestalaneko taldeari laburturik emateko eskatzen diona.

3. **Azalpena** arloan bi multzo handitako berriak ikus litezke. Batzordearen irizpideena da bat, forma jakin bat (dela ondare zaharrekoa, dela berrikitan era-tua, dela mailegu berria) baztertzeko, onartzeko zein hobesteko aipatu diren arrazoiena; maiz gertatzen da irizpide bat baino gehiago kontuan izan beharra forma beraren inguruan eta, bakanago bada ere, baita elkarren kontrako arrazoiak neur-tu beharra ere. Guztiak jaso ditzake arlo honek, zeini bere zenbaki-kodea dago-kiola.

Bigarren multzoan, “informazio osagarria” deitzen duguna aipatu ohi da (hi-tzaren osaera formala, inguruko formekiko erlazioa, erabileremua, erabilera sin-taktikoa, adiera); formak erabakitzea da oraingo pasaldi honetan batzordearen egiteko behinena, eta egiteko horri begira “osagarria” da horko informazioa; ge-rra, jakina, lehen mailakoa ere izan daiteke.

Forma jakinei dagozkien datu espezifikoien ondoan, hainbat formari dagoz-kienak batera ikusi eta lantzeko baliabidea nabarmenduko genuke, azkenik: ha-

lako irizpide zein kasutan aipatu den jakiteko modua eskaintzen baitu (aipatu de-
nean, noski) edo, alderantziz, halako auzi orokor-sistematiko zein formari
dagokion (adibide-fitxako *-or/-ore* bezalako beste zenbait: maileguetako “g/j” grafi
bitasuna; *-ari/-ero* atzizkien banaketa; [(sonante) + txistukari + herskari] segidak;
aditzonin forma eta banaketa zalantzazkoak, etab.).

4. **Iritzi-emaileak** alorrean, etorri eta etorriko diren iradokizunak, proposa-
menak, kritikak, etab. gorde ohi dira. Batzordearen lan-prozedura gogoratzea na-
hikoa dugu, ekarri hauen garrantziaz jabetzeko: 1) batzordeak bere proposamena
egiten du; 2) proposamen horren berri ematen die iritzi-emaileei; 3) iritziok kon-
tuan izanik, berrikusi egin behar ditu bere proposamenak, eta 4) informazio, iritzi
eta proposamen guztiok Euskaltzaindiaren esku jarriko ditu, honek bere ondo-
rioak atera eta bere erabakiak har ditzan. Alegia: behin-behinekotzat jo behar da
oraingo lana, eztabaida soziala eragin nahi da (zer esanik daukanak garaiz esan
dezan) eta, horretarako, ahalik eta leialkienik jakinarazi behar dira unean uneko
datuak.

Datu guztiak eta bakoitza ez ditugu denok modu berean balioztatzen eta pi-
satzen; gerta litekeena da, gainera, datua datuaren gain pilatzeak iluntzea ondo-
rioak, argitu ordez, edo, onenean ere, zailagotzea bitarteko lana...

Ezin ukatuko ditugu zailtasun eta emendailuzko lanok. Arrazoizkoa da
emaitzen oraingo itxura “kodetuegia” dela salatzen dutenen kritika, arrazoizkoa
eta eraginkorra: adierazpenak gero eta esplizituago egitea eragin baitute. Hori be-
zain argi aitortu nahi dugu, ordea, biltze- eta egituratze-saio hauek luzarora
emankorrek izango diren esperantza: informazio, eztabaida, irizpide nahiz kon-
ponezinak zein egoeratan dauden adierazteaz gain, han-hemenka tartekatu ditu-
gunak bezalako kontsultak noiznahi egiteko aukera eskaintzen baitute.